

Laburpen Exekutiboa

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2030



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Laburpen Exekutiboa

EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN PROGRAMA 2030



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Argitaraldia:

2021eko azaroa

Argitaratzailea:

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Ekonomia eta Ogasun Saila

Eusko Jaurlaritza

AURKIBIDEA

1. EROSKETAREN ETA KONTRATAZIOAREN PAPER ESTRATEGIKOA	04
2. EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN IBILBIDEA EUSKADIN	06
3. PROGRAMA BERRI BAT EUSKADIRENTZAT	07
3.1. Parte hartzeko lanketa-prozesua	07
4. 2030ERAKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOA	09
4.1. Ikuspegia	09
4.2. Printzipioak.....	09
4.3. Erronkak.....	09
4.4. Helburuak eta espero diren emaitzak.....	10
4.5. Jarduketa-eremuak eta ildoak	11
5. HEDAPENA: 2021-2025 EKINTZA-PLANA	12
6. GOBERNANTZA ETA KUDEAKETA	18
6.1. Gobernantza	18
6.2. Baliabide ekonomikoak	19
6.3. Segimendua eta ebaluazioa	19

01.

EROSKETAREN ETA KONTRATAZIOAREN PAPER ESTRATEGIKOA



Duela bi hamarkada baino gehiago, mundu osoko nazioek aitortu zuten ingurumenaren degradazioaren eta gizarte-bidegabekeriaren arrazoi nagusietako bat ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasanezinak zirela.

Gobernuek kontsumoan duten garrantzia eta merkatuan eta iritzi publikoan izan dezaketen eragin handia jakinik, herrialdeek konpromisoa

hartu zuten 2002an «*Kontratazio publikoko politikak sustatzeko, ingurumenari kalterik eragiten ez dioten ondasunak eta zerbitzuak sortzea eta zabaltzea sustatzeko*».

Harrezkero, hartutako konpromiso jarraituek aukera eman dute erosketaren eta kontratazio berdearen sektore publikoan zabaltzeko, bere kontzeptuak estrategikoenean.

EROSKETA ETA KONTRATAZIOA

Erosketa eta kontratazioa zeharkako tresna da helburu politiko osagarriak lortzeko, hala nola klima-aldaketaren aurkako borroka, naturabaliabideen erabileraren efizientzia, enpresa txiki eta ertainen garapena edo ekoberrikuntza.

Produktuen, obren eta zerbitzuen bizi-ziklo osoan zeharreko ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdiak kontuan hartuta, zuzenean nahiz zeharka laguntzen du ekonomia-eraldaketan eta hainbat garapen jasangarriko helburu lortzen.

1. IRUDIA.

Kontratazio jasangarriaren balizko ekarpena GJHetan.



Erakunde publikoak ez dira merkatuan erosketa- eta trakzio-ahalmena duten bakarrak. Enpresa-sektoreak ere gaitasun handia du ekonomia eraldatzeko eta kontsumo-ereduetan eragiteko, bai zuzenean, bai bere balio-katearen bidez. Hala aitortzen du Europako Itun Berdeak, eta bere helburua da indus-

tria mobilizatzea ekonomia garbi eta zirkular baten alde.

Hori guztia dela-eta, nahitaezkoa da konpromiso globala lortzea eta lan koordinatua egitea, erosketaren eta kontratazio publiko nahiz pribatuaren erabilera estrategikoaren inpaktua maximizatzeko.



02.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN IBILBIDEA EUSKADIN



Euskadi beti egon da Europako lurralde aitzindarien artean ekonomia- eta gizarte-garapeneko eredu jasangarrietaranzko trantsizioan.

Euskadiko erosketeta eta kontratazio berdearen ibilbidea luzea 3 etapatan ordena daiteke:

2002tik
2007ra

INGURUMENARI DAGOKIONEZ JASANGARRIA DEN EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKOA SUSTATZEKO OINARRIAK EZARTZEN DIRA

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) helburu gisa jarri zuen «Irizpide ekologikoak barne hartzen dituen erosketeta publikoen politika sustatzea». Helburu horrekin, lhobe baliabideak lantzen eta EAEko administrazioekin eta enpresa-sektorearekin modu berezian lan egiten hasi zen.

2008tik
2014ra

EUSKO JAURLARITZAN KONPROMISOA FINKATZEN DA

Erosketeta eta kontratazio publiko berdea jarduketeta-lerro gisa sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Esparru Programetan.

Etapeta honetan 2 gako-dokumentu onetsi ziren:

- 2008ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk EAEko Euskal Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan txertatzeari buruzkoa.
- Erosketeta eta Kontratazio Publiko Berdearen Lehen Programa (2011-2014).

2015etik
2020ra

EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEA EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOAN INDARTZEN DA

Azken aldi honetan, jauzi kualitatibo bat egin zen erosketaren eta kontratazio publikoaren erabilera estrategikoan. Hainbat elementu lagundu zuten horretarako:

- Kontratazio publikoaren 2014ko Europako zuzentzauek —eta haren Estatuko araudirako transposizioak Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea— lege-esparru onuragarria sortu zuten.
- Euskadin, erosketeta eta kontratazio publiko berdea laguntza-tresna gisa integratu zen garapen jasangarriko politika eta estrategia gehienetan. Eta 2016an Euskadiko Erosketeta eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2020 onetsi zen.

03.

PROGRAMA BERRI BAT EUSKADIRENTZAT



Jomuga 2030ean jarriz eta gaur egungo ibilbidea, testuinguru politikoa eta ekonomikoa eta erronkak kontuan hartuz, erosketa eta kontratazio berdearen etapa berri bati hasiera eman zaio Euskadin, helburu hauekin:

- EAEko ekonomia- eta ingurumen-politika-
rekiko koherentzia bermatzea, hurrengo ha-
markadarako lehentasunezko 3 eremuetan
lagunduz: ekonomia zirkularra, klima-aldaketa
eta natura-ingurunea eta biodibertsitatea.
- Erosketa eta kontratazio berdearen inple-
mentazio sistematikoa sendotzea euskal
erakunde publikoetan.
- EAEko enpresa-sektorea mobilizatzea bere
hornikuntzak erabil ditzan konponbide jasanga-
rriak eskaintzeko eta ingurumen-errendimendu
hobea eta lehiakortasun handiagoa lortzeko.

Etapa honetan, aurreko ibilbideari jarraipena emateaz gain, jauzi kualitatibo bat egin nahi da, sektore publikoaz gain Euskadiko sektore pribatua ere barnean hartuz.

3.1. PARTE HARTZEKO LANKETA-PROZESUA

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030 batera sustatu dute Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak.

Programa lantzen hainbat erakundek eta eragilek parte hartu dute: Eusko Jaurlaritzako sailek eta sozietate publikoek; foru-aldundiek eta erosketa eta kontratazio berdean aktiboak diren toki-erakundeek; eta EAEko enpresek. 350 eragile baino gehiago guztira, inplikazio-maila desberdinekin.

Parte-hartzea Euskadiko erosketa eta kontratazio berdearen politikaren nortasun-ikur bat da, eta, hala, modu naturalean integratu da Programa idazteko prozesuaren fase guztietan. Horren ondorioz, parte hartzeko lanketa-
ren eskema hau da:

PROGRAMAREN PARTE HARTZEKO LANKETAREN ESKEMA

PARTE-HARTZEA	LIDERGO PARTEKATUA Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Ekonomia eta Ogasun Saila					
	KOORDINAZIO- ETA LAN-SAIOAK Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eta Ihoberen artean					
OINARRI TEKNIKOAK	ANALISIA 2020ko maiatza-ekaina		PLANGINTZA ESTRATEGIKOA 2020ko uztailetik 2021eko uztaiera			
	ARTEAREN EGOERA		IKUSPEGI ESTRATEGIKOA	JARDUKETA-LERROAK	EKINTZAK ETA JARRAIPENA	
	ELEMENTU ESTRATEGIKOAK Zein aurrerapen dadude Europan eta nazioartean?	ERRONKA ESTRATEGIKOAK Zein puntutan gaude eta zein erronka gainditu behar dira aurrera egiteko?	IKUSPEGIA, PRINTZIPIOAK ETA HELBURUAK Zein da Euskadik trantsizio horretan duen anbizioa? Zein ikuspegi estrategiko planteatzen dugu 2030erako?	JARDUKETA-LERROAK Zein jarduketa jarri behar dira martxan helburuak lortzeko eta identifikatutako erronkak gainditzeko?	2025ERAKO EKINTZA-PLANA Zein dira inplementatu beharreko ekintza zehatzak? Nola neurtuko ditugu aurrerapena eta lortutako emaitzak?	
PARTE-HARTZEA	7 ELKARRIZKETA Europa mailako erreferentzia-erakundeei	3 LAN-TAILER Euskadiko EKPB eragile nagusiekin	4 AURKEZPEN-SAIO ETA KONTRASTE-GALDETEGI (2021eko maiatzetik uztaiera) Euskadiko EKPB eragile nagusiekin IREKIA: www.irekia.eus			

Eskemaren arabera, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030en parte hartzeko lanketa-prozesua partaide-tzazko ekintza hauetan gauzatu da:

- Sailen arteko koordinazio- eta lan-saioak.
- 7 elkarrizketa sakon Europa mailan erreferenteak diren pertsoneri.
- 3 lan-tailer Euskadiko erosketa berdearen eragile nagusiekin.
- 4 aurkezpen-saio programaren zirriborroro aurkezteko eta kontraste-galdetegi EAEko eragileei.
- Programaren zirriborroro Irekian sozializatzea.

04. 2030ERAKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOA



4.1. IKUSPEGIA

Euskal sektore publikoak eta pribatuak erosteko duten ahalmena bikaintasunez erabiltzea merkatuarekin koordinatuta, garapen sozioekonomiko jasagarria lortzeko eta aldi berean ingurumenaren babesa, enpresen lehiakortasuna eta Euskadiko pertsonen ongizatea sustatzeko.

4.2. PRINTZPIOAK

Hauek dira Programaren hedapena bideratzen duten printzipioak:

- **Koherentzia.**
- **Gardentasuna.**
- **Erantzunkidetasuna.**
- **Lankidetzeta.**
- **Eraginkortasuna eta berrikuntza.**
- **Sentsibilizazioa eta profesionalizazioa.**

4.3. ERRONKAK

Planteatutako ikuspegia lortzeko, eta bere eginkizun estrategikoa indartzeko asmoz, Programak 5 erronka landu beharko ditu:

- Erosketa berdea ainguratzea esparru juridiko irmo batean eta Euskadiko lehentasunezko ingurumen- eta ekonomia-helburu eta politikentzako babesa ziurtatzea.
- Erosketa publiko berdea finkatzea euskal sektore publiko osoan, antolakuntzetan egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtuz.
- Erosketa berdea euskal sektore pribatuan ere ezartzea, balio-kateen bidez merkatuaren trakzioa egiteko duten potentzialagatik.
- Merkatu berdea kalitatezko euskal eskaintza lehiakor eta prestatu batekin garatzea, arreta berezia jarriz ETEetan.
- Segimendu-sistemak hobetzea eta kontratazio berdeak Euskadin dituen eraginak eta onurak ikusaraztea.

4.4. HELBURUAK ETA ESPERO DIREN EMAITZAK

Programak epe ertain eta luzera lortu beharreko **4 helburu** ezartzen ditu:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Programara atxikitako entitate publikoen kopurua	75	150
Programara atxikitako entitate pribatuen kopurua (erakunde erosleak)	20	50
Garapen Jasangarrirako Helburua: 12.7.1 adierazlea (Ingurumen-irizpideak dituen kontratazioari buruzko 4.6ari dagokionez)	4,0	4,2
Erosketa publiko berdearen ehunekoa programan lehenetsitako kategorietan (eta kontratazio osoan)*	% 55 (% 40)	% 75 (% 60)

* Programan lehenetsitako kategoriak hauek dira:

LEHENTASUNEZKO KATEGORIAK			
Erosketa edo kontratazioa eta horiekin lotutako zerbitzuak			
 Obra zibila eta azpiegiturak	 Ehunak	 Argindarra	 Ibilgailu astunak
 Eraikuntza eta urbanizazioa	 Elikadura	 Argiztapen publikoa	 Ekipo informatikoak
 Altzariak	 Lorezaintza / Espazio berdeak	 Ibilgailu arinak	 Inprimaketa-ekipoak

Proposatutako helburuak lortuta, **emaitza** hauek espero dira:

ESPERO DIREN EMAITZAK	2025erako HELBURUA	2030erako HELBURUA
Produktu, obra eta zerbitzu berdeen erosketarekin eta erabilera-ekin lotutako karbono-emisioen murrizketa-ehunekoa	% 16	% 26
Iturri berriztagarrietatik lortutako elektrizitatearen hornidura-ehunekoa atxikitako entitate publikoetan	% 70	% 100
Atxikitako entitate publikoen lizitazioetan nabarmen txertatutako ontzi birziklagarrien edo berrerabilgarrien ehunekoa	% 50	% 100
Errebalorizatuko diren obrako hondakinen ehunekoa (Tn)	% 80	% 95

4.5. JARDUKETA-EREMUAK ETA ILDOAK

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030 **5 jarduketa-eremutan** egituratzen da, eta horietatik **10 jarduketa ildo eratortzen dira**.

2030ERA KO IKUSPEGIA



5 JARDUKETA-EREMU 2030ERA KO


1. Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa.
2. Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea.
3. Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea.
4. Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua.
5. Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea.



10 JARDUKETA-ILDO 2030ERA KO

- L.1. **Erosketa berdearen eginkizuna indartzea** tresna operatibo gisa euskal sektore publiko osoaren esparru politikoan eta juridikoan.
 - L.2. Erosketa berdea **Euskadiko ingurumen- eta ekonomia-lehentasunekin lerrokatzen dela bermatzea.**
 - L.3. **Euskal sektore publiko osoaren parte-hartzea lortzea.**
 - L.4. **Euskal enpresak sentsibilizatzea eta mugiaraztea.**
 - L.5. **Baliabideak hornitzea ezarpen sistematiko eta estrategiko baterako.**
 - L.6. **Erosketaren eta kontratazioko eginkizuna profesionalizatzea** inplikaturako langile guztiengan.
 - L.7. **Merkatuarekiko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea**, konponbide berritzaileagoak, jasangarriagoak eta lehiakorragoak aurkitzeko.
 - L.8. **Enpresa hornitzaileak prestatzea**, batez ere ETEak, kontratatzaileen ingurumen-eskariei aurre egiteko.
 - L.9. Ingurumenari dagokionez jasangarria den erosketa eta kontratazioaren **ezarpena neurtzea eta bere onurak zenbatzea.**
 - L.10. **Euskadiren aurrerapenak eta lorpenak jakinaraztea eta sustatzea** barne-mailan zein Europa mailan eta nazioartean.
-

05. HEDAPENA: 2021-2025 EKINTZA-PLANA



Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030 **bost urteko bi Ekintza Planen** bidez hedatuko da: Plan horietan jaso dira definitutako helburuak lortzeko epe ertain-luzera egin beharreko ekintzak.

Lehen 2025 Ekintza Planak Programa onetsi zenetik 2025era arteko epea hartzen du. Amaitutakoan, ezarritako helburuen inplementazio-

eta lorpen-maila ebaluatuko da, eta, hortik abiatuta, 2026-2030 aldirako Ekintza Plana diseinatuko da. Horri esker, jarduketak eguneratu eta testuinguru-aldaketetara eta emaitzetara egokitu ahal izango dira Programaren denbora-esparruan.

2025erako Ekintza Plana **21 ekintzak** osatzen dute.

1. Eremua

Erosketa eta kontratazio berdea finkatzea Euskadiko politiken hedapenerako funtsezko tresna gisa

1. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA BERDEAREN PAPERA INDARTZEA TRESNA OPERATIBO GISA EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOAREN ESPARRU POLITIKOAN ETA JURIDIKOAN

1. Instrukzio bat egitea, ingurumen-klausulak txertatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta horren sektore publikoaren kontratazioan.
2. Erosketa berdea txertatzea Euskadiko araudi eta politika garrantzitsu berrietan.

2. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA BERDEA EUSKADIREN INGURUMEN- ETA EKONOMIA-LEHENTASUNEKIN LERROKATZEN DELA BERMATZEA

3. Erosketa berdeko irizpideak berrikustea eta 3 urtean behin eguneratzea, euskal lehentasunekin lerrokatzeko.
 4. Erosketa berderako baliabideek Euskadiko garapen jasangarriko lehentasunak indartzen dituztela ziurtatzea.
-

2. Eremua

Euskal sektore publiko eta pribatuaren erosketa eta kontratazio berdearekiko konpromisoan aurrera egitea

3. JARDUKETA-ILDOA:

EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOAREN PARTE-HARTZEA LORTZEA

- 5. Administrazioen profilaren araberako lantaldeak sortzea, lizitazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesua azkartzeko, Udalsarea2030 erabiliz sare nagusi gisa.
- 6. Lantalde bat sortzea obretan bigarren mailako materiala txertatzen dela ziurtatzeko, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planean zehaztutako erabilerekin eta kalitateekin bat eginez.

4. JARDUKETA-ILDOA:

EUSKAL ENPRESAK SENTSIBILIZATZEA ETA MUGIARAZTEA

- 7. Berriazko estrategia/programa bat definitzea euskal enpresa-sektoreko erosketa eta kontratazio berderako, euskal enpresen hornikuntzan ingurumen-irizpideak txertatzea bultzatuko duena.
-

3. Eremua

Erosketa eta kontratazio berdea antolakuntzetako egiturazko eta berrikuntzako elementu bihurtzea

5. JARDUKETA-ILDOA:

BALIABIDEAK HORNITZEA EZARPEN SISTEMATIKO ETA ESTRATEGIKO BATERAKO

8. Litzazioen ingurumen-izaera indartzeko aholkularitzako edo babes pertsonalizatuko zerbitzua indartzea.
9. Tresna eta baliabide teknikoak sortzea eta/edo egokitzea erosketa eta kontratazio berderako.
10. Pilotu-ekimenak abiaraztea behar beste garatu ez diren erosketa berdearen eremuetan, bizitza-zikloaren kostuak edo berrikuntza-erosketa bezalako lehentasunezko gaietan zentratutakoak.

6. JARDUKETA-ILDOA:

EROSKETA ETA KONTRATAZIOKO EGINKIZUNA PROFESIONALIZATZEA INPLIKATUTAKO LANGILE GUZTIENGAN

11. Euskal sektore publikoarentzako erosketa publiko berdearen inguruko trebakuntza egonkorreko ildo bat ezartzea, besteak beste, HAEEren bidez.
 12. Inplikaturako langile berriak integratzeko eskuliburu-eraketarako materiala garatzea, bere jarduketetan ingurumen-irizpideak kontuan hartzearen paper estrategikoari eta betebeharrari dagokienez.
-

4. Eremua

Merkatu egokia edukitzea, kalitatezkoa eta prestatua

7. JARDUKETA-ILDOA:

MERKATUAREKIKO ELKARRIZKETA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA, KONPONBIDE BERRITZAILEAGOAK, JASANGARRIAGOAK ETA LEHIAKORRAGOAK AURKITZEKO

13. Entitate kontratatzaileen (publikoak eta pribatuak) eta hornitzaileen arteko elkarrizketarako bideak ezartzea, lehentasunezko produktualdeetan edo eremuetan zentratutakoak, premiak aurkezteko, egungo konponbideak ezagutzera emateko eta emaitzak areagotzeko, besteak beste, merkatuari zuzendutako kontsultak eta berrikuntzarako elkarketa bezalako figuren bidez.
14. Enpresa hornitzaileek tresna eta baliabide berrien garapenean parte hartzen dutela bermatzea.

8. JJARDUKETA-ILDOA:

ENPRESA HORNITZAILEAK PRESTATZEA, BATEZ ERE ETEAK, KONTRATATZAILEEN INGURUMEN-ESKARIEI AURRE EGITEKO

15. Erosketa berdea txeratzea ETE Zirkularra programan.
 16. Enpresa hornitzaileentzako prestakuntza-saioak egitea, ingurumenaldagaia bere ondasun eta zerbitzuetan txertatzeari eta eskaintzak prestatzeari buruz.
-

5. Eremua

Erosketa eta kontratazio berdearen aurrerapenak, lorpenak eta onurak ikusaraztea

9. JARDUKETA-ILDOA:

INGURUMENARI DAGOKIONEZ JASANGARRIA DEN EROSKETA ETA KONTRATAZIOAREN EZARPENA NEURTZEA ETA BERE ONURAK ZENBATESTEA


- 17. Etekinak/emaitzak neurtzeko sistema bat definitzea, erosketa publiko berdearen abantailak identifikatzea ahalbidetuko duena.
- 18. Ingurumen-onuren kalkulua ahalbidetzen duten alderdiak txertatzea kontratazio berdeko irizpideetan bertan.

10. JARDUKETA-ILDOA:

EUSKADIREN AURRERAPENAK ETA LORPENAK JAKINARAZTEA ETA SUSTATZEA BARNE-MAILAN ZEIN EUROPA MAILAN ETA NAZIOARTEAN

- 19. Erosketa berdeko jardunbide egokiak eta pleguen adibideak hedatzea euskal sektore publikoaren artean, beste bide batzuen artean, gaiaren inguruko albiste eta nobedadeak jasotzen dituzten sei hileko buletinen bidez.
 - 20. Euskadiren parte-hartzea areagotzea lortzea Nazio Batuen «Programme on Sustainable Public Procurement» Programan eta Icleiren «Procura+» Programan.
 - 21. Erosketa publiko berdearen inguruko urteko foro bat ospatzea, esperientziak aitortzeko eta partekatzeko eta kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesua azkartzeko.
-

06. GOBERNANTZA ETA KUDEAKETA



6.1. GOBERNANTZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak gidatzen dute, batera, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030.

Aldi berean, eta parte hartzen duten eragile guztien parte-hartze eta inplikazio aktiboa eta Programaren helburuak lortzen direla ziurtatzeko, zeharkako eta partaidetzazko gobernantza-eredu hau definitzen da:

ZEHARKAKO ETA PARTAIDETZAZKO GOBERNANTZA-EREDUA

IDAZKARITZA TEKNIKOA	<p>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak hartu du bere gain, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren —Ihoberen— bidez.</p> <p>Eginkizun nagusiak: gobernantza-taldeak dinamizatzea eta Programaren exekuzio praktikoa gainbegiratzea.</p>
SEGIMENDUKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA	<p>Bertako buru izango dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Ekonomia eta Ogasun Saila, eta euskal administrazioko maila guztiak, Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiak eta udalak integratuko ditu, Programarekiko konpromisoak gauzatzen joan ahala.</p> <p>Eginkizun nagusiak: Programaren ezarpen-maila hedatzea eta haren jarraipena egitea eta ezarritako helburuak lortzeko hobekuntza-neurriak identifikatzea.</p>
JARDUNEAN DAUDEN ERAKUNDEEN TALDEAK	<p>Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030ekiko eta haren helburuekiko konpromisoa hartzen duten entitate guztiek osatzen dituzte.</p> <p>Eginkizun nagusiak: erosketa eta kontratazioaren erabilera estrategikoa eta inplementazio sistematikoa.</p>

6.2. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030en aurrekontu-beharrak egungo testuinguru ekonomikora egokitzen dira, aurreikusitako helburuak lortzeko eta, era berean,

egin diren eta mantendu behar diren jarduketei jarraipena emateko.

Aurrekontu operatibo zenbatetsia hau da:

AURREKONTUA JARDUKETA-EREMUAREN ARABERA

Eremua	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	GUZTIRA	%
1. eremua	16.000	14.000	19.250	19.250	19.250	16.500	15.400	14.300	13.200	16.500	163.650	% 10,3
2. eremua	50.000	43.750	35.000	35.000	31.500	27.000	25.200	23.400	21.600	27.000	319.450	% 20,1
3. eremua	44.000	38.500	52.500	52.500	47.250	31.500	36.400	31.200	26.400	27.000	387.250	% 24,4
4. eremua	40.000	35.000	43.750	43.750	43.750	45.000	42.000	39.000	36.000	45.000	413.250	% 26,0
5. eremua	50.000	43.750	24.500	24.500	33.250	30.000	21.000	22.100	22.800	34.500	297.650	% 19,3
GUZTIRA	200.000	175.000	175.000	175.000	175.000	150.000	140.000	130.000	120.000	150.000	1.590.000	
%	% 12,6	% 11,0	% 11,0	% 11,0	% 11,0	% 9,4	% 8,8	% 8,2	% 7,5	% 9,4		

Eskatutako baliabideak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari lotutako 2021eko aurrekontu-esparruan oinarritzen dira.

2021-2025 lehen ekintza-planerako guztizkoaren % 57ko aurrekontu-premia aurreikusi da. 2026an hasiko den Programaren bigarren ekintza-planerako, aurrekontu-beharrak murriztea aurreikusten da, aurrekontu osoaren % 43ra iritsiz.

6.3. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Programak prozedura eta ekintza zehatzak jasotzen ditu ezarritako helburuen aurrerapen-eta lorpen-maila ebaluatzeko.

— **Urteko segimendu-txostena:** urte bakoitzaren hasieran egingo da, eta bertan jasoko dira bost urteko ekintza-planean aurreikusitako jardueren aurrerapen-maila, funtsezko helburu estrategikoak lortzeko aurrerapau-soak eta urteko lan-planerako gomendioak.

— **Programaren adierazle nagusien aurrerapenaren urteko txosten laburtua:** urtero egin eta argitaratuko da, Programaren betetze-maila neurtzeko adierazleen emaitzekin.

— **Ekintza Planaren ebaluazio-txostena:** bost urtez behingo ekintza-plan bakoitzaren azkenengo urtearen amaieran egingo da eta programaren aginte-koadroaren adierazle guztien bilakaera jasoko du, baita hurrengo ekintza-plana eta/edo indarrekoa ordeztuko duen programa berria zehazteko hausnarketak eta gomendioak ere. Txostena kanpoko erakunde batek egingo du, aintzat hartuz gardentasun, partaidetza eta lankidetzarako irizpideak, eta aginte-koadroko adierazleen bilakaera ere barnean hartuko du.